



“BOST GELTOKI HISTORIAN”, UROLA BAILARAKO ESKAINTZA TURISTIKOA 2012

Aurrekariak

- 2009. urtean elkartu ziren lehen aldiz, **Iraurgi Lantzen S.A.** Urola Erdiko Garapen agentziaren ekimenez, Urola bailarako aisia eta turismo arloko bost eragile esanguratsuenetakoak, elkarlanean produktu turistiko bat sortu eta bailarako eskaintza turistikoa aberasteko asmoz.
- **Algorri naturaren ezagutza etxea** (Zumaia), **Ekainberri** (Zestoa), **Loiolako Santutegia** (Azpeitia), **Burdinbidearen Euskal Museoa** (Azpeitia) eta **Zuloaga Museoa** (Zumaia), **Iraurgi Lantzen S.A.**ren gidaritzapean **5 Geltoki Historian** produktua sortu eta merkaturatu zuten, eta 2009. Urtea geroztik, urtero bere berrikuntzekin merkaturatzen egon izan da.
- 2012. urtean **berrikuntza** garrantzitsu batekin aurkezten dugu produktua.
- Geltoki berri bat sortu dugu, bailarako lau tabernek osatzen dutena; Zumaiako **Kresala** taberna, Zestoako **Fati** taberna, Azpeitiko **Oñatz** taberna, eta Azkoitiko **Bai Azkoitia Batzokia** taberna.
- Museoak bisitatuz historian zehar eta bailaran barna egitea proposatzen dugun bidai honi, **osagarri gastronomikoa** eman nahi izan diogu, jateko eta edateko biltzea gure izaeran sartuta dagoen fenomeno bat delako.
- Ondorioz, 5 Geltoki Historian 2012 ren osagaiak honako hauek dira:
 - **Algorri Naturaren Ezagutza Etxea** (Zumaia)
 - **Ekainberri** (Zestoa)
 - **Burdinbidearen Euskal Museoa** (Azpeitia).
 - **Loiolako Santutegia** (Azpeitia).
 - Geltoki gastronomikoa: **Kresala** taberna (Zumaia), **Fati** taberna (Zestoa), **Oñatz** taberna (Azpeitia), **Bai Azkoitia Batzokia** taberna (Azkoitia).

“Bost geltoki historian zehar”, eskaintza turistikoa - forfaita

- 20 Km barruan kokatzen diren lau geltoki edo zentro hauek bisitatuaz, publikoari **bidai**a bat egiteko aukera eman nahi zaio zentzu bikoitz batean; bidai **geografikoa** alde batetik **Zumaiatik Azkoitiraino Urola** bailara zeharkatuaz, eta bidai **historikoa** bestetik, historiako zenbait aro, pertsonai edo momentu klabe interpretatuaz eta lehen eskutik ezagutuaz.
 - **Algorri**, Zumaiako Natur Baliabideen Interpretazio Zentroa: Lurraren historia harkaitzetan jaso
 - **Ekainberri**: Prehistoria – Bailarako lehen gizakien aztarnak.
 - **Loiolako Santutegia**: XVI.-XVII Mendeak – San Ignazio-ren bizia eta legatua.
 - **Burdinbidearen Euskal Museoa**: XX. Mende hasiera Industrializazio garaia – Urolako Trena.
- **Bostgarren** geltokian, hau da, ekimenean parte hartzen duten taberna hauetan berriz, indarrak hartzeko aukera, “pintxo pote” modalidadeko eskaintzaz baliatuz zintzurra busti eta sabela betetzeko.
- Produktuaren ezaugarri eta edukiak:
 - Forfaitaren prezioa: **8,5 Euro** (lau museoen sarrera prezioen baturaren %50).
 - Zer eskuratu daiteke forfait honekin:
 - Museo bakoitzera sarrera.
 - Taberna bakoitzean pintxo bat eta edari bat hartzeko **eskubidea 1,50** euroren truke (pintxo pote modalidadea).
 - Epemuga: 2012ko Uztailak 7tik Abenduak 9 arte (barne).
 - Forfaita pertsona batetik bestera pasa daiteke, transferiblea da.



-Bidaia hau bere osotasunean egitea, hau da, lau geltokitan geldialdia egin eta taberna bakoitzean “pintxo pote” bat hartzeko aukera ahalbidetuko duen txartela honako geltoki edo salmenta puntutan lortu daiteke.

1. Loiolako Santutegiko Turismo Bulegoa.
2. Ekainberri (txartel salmenta eta turismo bulegoa).
3. Zumaiako Turismo Bulegoa.
4. Algorri, Zumaiako Natur Baliabideen Interpretazio Zentrua
5. Burdinbidearen Euskal Museoa (Azpeitia).

Informazioa:

Urola Erdia Eskualdeko Turismo Bulegoa
Tel. 943 151878, i-loiola@urolaturismo.net

Zestoako Turismo Bulegoa
Tel. 943 868811, info@ekainberri.com

Zumaiako Turismo Bulegoa
Tel. 943 143396, turismoa@zumaia.net

www.urolaturismo.net